



Arartekoaren 2019R-922-18 Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zaio hala eskatutako pertsoneri eman diezaien Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketetako ahozko probaren grabaketaren kopia.

Aurrekariak

1. XX-ek Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iragarritako 2017ko deialdian parte hartu zuen.

Bigarren saiakeran —bigarren deialdian—, izangaiak «ez gai» kalifikazioa jaso zuen ahozko proban. Hortaz, zegokion erreklamazioa egin zuen, kalifikazio horren kontra egite aldera, bai eta azterketa berrikusi zedin eta probaren grabaketa entzun zezan eskatze aldera ere. Azken eskaera horri behar bezala eman zitzaion arreta.

Erreklamazioa egiteko lehenengo izapide horri amaiera eman zitzaion aurretiaz egindako ebaluazioa berretsi zuen jakinarazpen baten bitartez. Horrenbestez, eta aldi berean, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zen, baina errekurtsu hori ere ezetsi egin zen, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak emandako ebazpen baten bitartez. Ebazpen horretan, ebaluatzeko lan orok eskatzen duen diskrezionalitate teknikoaren alde egin zen.

2. Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren erabaki horren berri izandakoan, XX-ek ahozko probaren grabaketaren kopia bat eskatu zuen.

Hasieran, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Itzulpeneko eta Normalizazioko teknikariak eskaera hori ezetsi zuen. Izan ere, teknikariaren ustez, prozedura amaituta zegoen, eta interesdunak bide judizialari jarrai ziezaiokeen bere burua defendatzeko.

Edozein kasutan, XX-ek berraztertze errekurtsua —halaxe sailkatu zuen berak— jarri zuen, jarraian. Errekurtsu hori normaltasunez izapidetu zen, eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak beste ebazpen bat eman zuen interesdunaren eskaera hori ere ukatzeko.

3. Administrazio bidean hartutako ekimenez gain, XX-ek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan. Kexa horren bidez, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen xede bera lortzeko asmoz, hau da, ahozko probaren grabaketaren kopia bat eskuratzeko asmoz.

Kexa hori izapidetu zedin onartzea erabaki ondoren, erakunde honek beste hainbat jarduketa egin ditu Hezkuntza Saileko arduradunen aurrean. Arduradun horien azken erantzunaren arabera, interesdunaren berraztertze errekurtsua





ukatu zuen Hezkuntza Berriztatzeke zuzendariak emandako ebazpenera jo zuten arduradunok; ebazpen hori zehatz-mehatz jasoko da jarraian azalduko diren gogoetetan.

Gogoetak

1. Azaldu beharra dago XX interesduna zenaren egoeraz baliatu zela erakunde honetan kexa aurkezteko eta ahozko probaren grabaketaren kopia eskuratzeko uziaren oinarria justifikatzeko orduan. Horrez gain, egoera hori dutenei aitortutako eskubideez ere baliatu zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (hemendik aurrera, 39/2015 Legearen) 53.1 a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Halaber, interesdunak bere eskubidearen eraginkortasunerako balizko mugarik eza justifikatu zuen, besteak beste, ukitutako beste batzuen datu pertsonalak babesteko betebeharrak ezarritako mugak, betiere aintzat harturik datu horiek bereizteko lana egin ahal izango dela, nahiz eta datu horiek haztatzeko beharra aitortu.

2. Kexa lehen aldiz baloratu zenean, erakunde honek egindako planteamenduarekin bat egin zuen. Hala, Hezkuntza Saileko arduradunengana jotzea erabaki zuen, eta honako hau esan zien:

“Kexa-espeditente honen harira bildutako dokumentazioari esker, erakunde honek egiaztatu du hezkuntza-administrazio horrek ez duela zalantzan jartzen EGA eskuratzeko urtero egiten diren deialdiak, egiatan, administrazio-prozedurak direla, eta horien erreferentziazko erregulazioa, gaur egun, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea (39/2015, urriaren 1ekoa) izan behar dela. Gure ustez, horixe adierazten dute bai Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko azaroaren 21eko Aginduaren –2017ko Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) azterketa-eredua ezarri zuena– 11. artikulua, bai Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren 2018ko martxoaren 15eko ebazpenak, XX jaunak jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezetsi zuenak.

Hori horrela izanik, ez da bidezkoa interesduna auzibidera joatera behartzea. Kontuan hartu beharra dago, hezkuntza-administrazio horrek azalduko gora-behera, 39/2015 Legearen 53.1.a) artikulua XX jaunari aitortzen diola interesdun den prozedurako dokumentuen kopiak edozein unetan eskuratzeko eskubidea.





Beste kontu bat da, eskubide hori baliatzean, kontu handiz ibili behar izatea grabaketetan ageri diren beste pertsona batzuen datu pertsonalen babesa arriskuan ez jartzeko.

Horri dagokionez, egia esan, ez dago beste eragozpenik grabaketaren kopia interesdunari emateko; izan ere, 39/2015 Legearen 53.1.a) artikulua ematen duen legeko babesa du, oraindik indarrean dagoen Izaera Pertsonaleko Datuak Babestari buruzko Lege Organikoaren 11.2.a) artikulua eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.d) artikulua araber.

Hala ere, lagapen hori gauzatu aurretik, hezkuntza-administrazio horrek bermatu beharko du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1.c) artikuluan aitortutako xede-printzipioarekin bat etorritik, lagatutako datuak egokiak eta bidezkoak direla, eta kexagilearen (XX jauna) eskaeraren xedera mugatzen direla. Hortaz, printzipio horri jarraituz, EGARI buruzko atarian benetako proben grabaketak argitaratzen direnean aintzat hartutako kautelazko neurri berak hartu beharko liriteke, gutxienez.

Baina, berriz ere diogu, kautelazko neurri horiek gorabehera, ez dela bidezkoa administrazio horrek ez hartzea kontuan XX jaunaren eskubidea; izan ere, prozedura horretako interesduna izanik, eskubidea du 2017ko azaroaren 18an egindako ahozko probaren grabaketaren kopia eskuratzeko”.

3. Hala ere, XX jaunak jarritako azken errekurtsua ukatu zuen Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak emandako ebazpenak honako hau nabarmendu du: interesdunak ahozko probaren grabaketaren kopia bat eskuratzeko eskaera egin zuenean, prozedura jada amaituta zegoen, eta, horrenbestez, eskaera baloratzeko orduan, ez zaio 39/2015 Legearen 53.1 a) artikulua ezarritakoari jarraitu behar, baizik eta lege-xedapen beraren 13 d) artikuluari; artikulua horrek, aldi berean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen araudira jo du.

Egia da, dirudienez, ohar hori ez datorrela bat 19/2013 Legearen lehen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Izan ere, legeak honako hau adierazi du, berenberegiz: *“Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia.”* (guk geuk idatzi dugu azpimarratuta dagoena). Hala ere, horrek ez du garrantzi handirik ondorio hauetarako.





4. Halaber, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak emandako ebazpenak azpimarratu du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez dela eskubide absolutua eta gainerako en eskubideak bezala baliatu behar dela, bai eta eskubide horiek ere errespetatu behar direla ere, adibidez, datu pertsonalen kasuari dagokionez.

Azken argudio hori garatze aldera, ebazpenak azaldu du nola egiten den ahozko proba:

“Hortaz, ikus daiteke mintzameneko ariketetan, azterketariak binaka aritzen direla eta, beraz, ariketa horien grabazioek bi pertsonen probak jasotzen dituztela.

Horrelako proba guztietan, hautagai guztiei identifikatzeko eskatzen zaie eta horregatik beren datu pertsonalak grabazio horretan jasotzen dira (eta ahotsa ere identifika dezakeen datu bat da) eta, beraz, beste persona batek azterketan emandako erantzunak ezagut daitezke”.

Horrenbestez, honako hau baieztatu da:

“Kasu honetan, ez dakigu zehazki zein diren eskatutako grabazioaren datuak, zeren, nahiz eta proba egiteko ez eskatu bereziki babestutako daturik, horrek ez du ziurtatzen proba egitean azterketarietako batek ez aipatu izana babes bereziko daturen bat.

Halere, argi dago proba hori egin zuten pertsonak identifikatzeko datuak daudela baita galderei eman zizkieten erantzunak ere. Beraz, goian aipatutako 19/2013 Legearen 15.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartu beharko litzateke, behintzat. Horrez gain, EGAREN azterketa 17 urteko pertsonen, hau da, adin txikikoek, egin dezakete...”

Eta, bukaera gisa, honako hau ondorioztatu da:

“Azterketa egin duen beste pertsonaren eskubideak zaindu behar dira, zehazki, saihestu egin behar da beste azterketari batek egindako azterketa kanpoan zabaltzeko aukera, zeren nahiz eta administrazio-prozedura baten (kasu honetan, amaituta dago) zati izan, horrek ez du esan nahi ez dionik eragiten nolabait egilearen «pribatutasunari» edo gutxienez publikoki ez zabaltzeko duen eskubideari, batez ere, kopia horiek gainerako partaideei prozeduran entregatzea ez bada beharrezkoa eskubide horiek baliatzeko. Kasu honetan, behar bezala baliatu ahal izan dira eskubide horiek Administrazioak behar diren argibideak eman baititu grabazioa, administrazioaren bulegoetan, erreproduzitu ondoren; une horretan errekurtsogileak bere eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen zituen oharrak hartzeko aukera izan zuen. Horrek ez du eragozten, bestalde, administrazio-jarduketara judizialki aurkaratu izan balitz (kasu honetan gora



jotzeko errekursoaren ebazpena), auzitegiak egokitzen jo izan balu, justizia auzitegira bidaltzea azterketa hori”.

Honako hau ere baieztatu da:

“Hau da, kopia lortzeko xedea bada espediente baten behar besteko informazioa izatea administrazio-prozedura edo prozedura judizial batean defendatzeko, xede hori lor daiteke administrazio-egoitzatik dokumenturik atera gabe, horiek erabiltzean horiekiko kontrola galduko baita. Kontua ez da pentsatzen dela dokumentazio hori gaizki edo ondo erabiliko dela baizik eta, lehen esan bezala, era proportzionatuan jardutea. Interesdunak defendatzeko behar duen informazioa lortzen badu beste azterketari batzuen dokumenturik gabe, aipatutako administrazio-jarduketako proportzionaltasun-printzipioa kontuan izanda, ondorioztatu behar dugu interesdun baten eskubideak era horretara defendatzeko modua dela kontrajartzen diren eskubide guztiak ahalik eta ondoen babesteko modua”.

5. Egia da 19/2013 Legearen 15.3 artikulua ezarri duela beharrezkoa dela haztapan arrazoitua egitea informazioa hedatzeko interes publikoa bateraezina izan baliteke ukitutako pertsonen —zeinen datuak eskatutako informazioan ageri baitira— datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidearekin.

Izan ere, artikulua horrek haztapan hori egiteko irizpideak ere ezarri ditu, besteak beste, ukitutako pertsonen eskubideen bermerik handiena, baldin eta agirian jasotako datuek pertsona horien intimitateari edo seguritateari eragin baliezaiekete, bai eta adingabeei buruzkoak badira ere. Dirudenez, azken irizpide hori erabili nahi da kexagileak egindako eskaerari baiezkota eman ez izana justifikatzeko, baina gutxi aurkez daiteke horren aurrean.

6. Bada, erakunde honek txundituta dagoela adierazi nahi du. Izan ere, haztapan horren baitan, antza denez, 19/2013 Legearen 15.3 artikuluan beren-beregi sartutako lehenengo irizpide horri beste bat gehitu zaio, hain zuzen ere, administrazio jardunean balizko proportzionaltasuna izateko beharra. Gure ustez, irizpide hori ez da batere egokia.

Alde batetik, ez da egokia baldin eta XX jaunaren uzia informazio publikoren bat eskuratzeko uzitzen jo behar bada, Hezkuntza Berriztatze zuzendariak zehaztu duen legez. Kasu horretan, muga posible bakarrak 19/2013 Legearen 14. eta 15. artikuluetan beren-beregi adierazitakoak dira, eta artikulua horiek irakurtzera joko dugu.





Bestetik, honako hau ere gogoratu beharra dago: agiri zehatzen bat eskuratzeko eskubidea interesatua izaki eta administrazio prozeduraren batean eskatu den kasuetan, epaileek zalantzarik gabe nabarmendu dute herri-administrazioek gauzatu behar duten eskubidea dela, legez aitortutakoa. Hori dela eta, Arartekoaren ustez, ez da bidezkoa administrazio jardunaren bilatutako proportzionaltasuna erabiltzea, proportzionaltasun horrek, azken finean, eskubide hori gauzatzearen kontra baino ez baitu egiten. (Horri lotuta, ikusi Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren 2010eko otsailaren 2ko epaia).

7. Haatik, edonola ere, erakunde honek honako hau nabarmendu behar du berriro, aurretiaz egindako esku-hartze batean ere nabarmendu zuen legez: gauzak horrela eginda, Hezkuntza Saila ez da aintzat hartzen ari 19/2013 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoa; lege horrek honako hau adierazi du, beren-beregi: *“Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada”*.

Gainera, uko egite horrek kontraesan argia du sailak benetako proben grabaketak EGAREN atarian normaltasunez argitaratzen dituen momentutik. Orokorrean, grabaketa horiek manipulatu egiten dira azterketa egin dutenak identifikatzeko datuak ezabatze eta haien ahotsak distortsionatze aldera.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Hezkuntza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketetako ahozko probaren grabaketen kopia ematea kopiok eskatzen dituzten pertsonari, betiere datu pertsonalen beharrezko babesak eskatzen duen nahitaezko arretarekin.

